

**32/2024 TXOSTENA, AZAROAREN 27KOA, KONTRATAZIO PUBLIKOAREN AHOLKU
BATZORDEAREN BATZORDE IRAUNKORRARENA.****XEDEA: LANBIDE-EUSKAL ENPLEGU ZERBITZUAREN ESTATUTUAK ARAUTZEN
DITUEN DEKRETU-PROIEKTUA.****I.- AURREKARIAK.**

Hasteko, adierazi behar da Enpleguaren abenduaren 21eko 15/2023 Legea EAEko Autonomia Estatutuaren 10.25 eta 12.2 artikuluetan xedatutakoaren arabera onartu dela, eta horien bidez Euskal Autonomia Erkidegoa gaitzen dela enplegu-politika propioa ezartzeko eta garatzeko, ekonomiaren antolamendu orokorraren arabera eta Estatuak ematen duen lan-legeriaren esparruan.

Halaber, Enpleguaren abenduaren 21eko 15/2023 Legearen VI. tituluaren arabera, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzua zuzenbide pribatuko ente publikoa da, eta haren helburuak dira lan duina izateko eskubidea erabat garatzen laguntzea, eta langileen enplegagarritasuna bermatzen, enpresen eskakizunei egokitutako langile-premiak asetzen eta gizarte- eta lurralde-kohesioa bultzatzen efizientziaz laguntzeko moduko lan-merkatua eratu dadin erraztea.

Era berean, Euskal Enplegu Sarea sortzeak Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzu Publikoaren egitura organiko eta funtzionalaren antolaketa behar bezala egokitzea eskatzen du, bai eta bere gobernu-organoen eremu funtzionala zehaztea ere, enplegu-zerbitzuak modu eraginkorren kudea daitezen ahalbidetzeko eta enpleguaren eremuan prestazio-rola hartzen duten sare hori osatzen duten entitate guztien kohesioa eta koordinazioa bermatzeko.

Ilido horretan, aipatu legearen 95. artikulua honako hau ezartzen du:

«1. Eusko Jaurlaritzak Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzu Publikoaren estatutuak onartuko ditu dekretu bidez. Estatutu horietan, gobernu-organoen eginkizunak, osaera eta izendapena, erakundearen zerbitzuen egitura organikoa eta funtzionala eta funtzionamendu-araubidea

garatuko dira, eta enpleguaren eta inklusioaren arloan ikerketarako, diseinurako eta berrikuntza aplikaturako laguntza tekniko espezializatua bermatuko da.

2. Estatutuek identifikatuko dute zer organok duten esleitua administrazio-ahalak erabiltzea».

Artikulu horretan jasotakoa ikusita, Ekonomia, Lan eta Enplegu Sailak Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzu Publikoaren estatutu berriak arautzen dituen dekretu-proiektua onartzea erabaki du.

2024ko azaroaren 12an, aipatutako saileko Enplegu eta Gizarteratze Zuzendaritzak eskaera bat aurkeztu zuen, Kontratazio Publikoaren Aholku Batzorde honek txostena egin zezan Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzu Publikoaren estatutuak arautzen dituen dekretu-proiektuari buruz.

Espediente hori Tramitaguneren bidez izapidetu zen, hau da, prozedurak elektronikoki izapidetzeko aplikazio informatikoaren bidez, DNCG_DEC_4541/24_03 erreferentziarekin, eta txostenerako interesgarriak diren honako agiri hauek jasotzen ditu:

- Dekretu-proiektuaren testua.
- Proiektua egiteko prozedura hasteko agindua.
- Dekretu-proiektua aldeztetik onartzeko agindua.
- Proiektuaren arau-eragina aztertzekeo memoria.
- Proiektuari buruzko memoria ekonomikoa.
- Ekonomia, Lan eta Enplegu Saileko Aholkularitza Juridikoaren txosten juridikoa.

Dekretu-proiektuak honako hauek hartzen ditu barnean: 1 artikulua, 4 xedapen iragankor, 2 xedapen gehigarri, xedapen indargabetzaile bat, 3 azken xedapen eta Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzu Publikoaren estatutuak biltzen dituen eranskin bat.

II.- ESKUMENA.

Txosten hau Kontratazio Publikoaren Aholku Batzordeak eman behar du, nahitaez, 116/2016 Dekretuak 27. artikulua a) apartatuaren a) letran ezarritakoari jarraituz (116/2016 Dekretua, uztailaren 27koa, Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoaren kontratazioaren araubidea ezartzekoa); izan ere, xedapen orokor bat da, eta xedapen orokor horren edukiak kontratazio publikoaren eremuari eragiten dio, partzialki, eta Gobernu Kontseiluari dagokio hura onartzea.

Bestalde, eta 116/2016 Dekretuaren 30. artikulua 2. apartatuaren a) letraren arabera, Aholku Batzordeak duen aholkularitza-eginkizuna, egitura organikoak eta funtzionalak arautzeari dagokionez, Batzorde Iraunkorrak beteko du.

Txostenaren irismenari dagokionez, dekretu-proiektutik sektore publikoko kontratuen araubide organiko eta juridikoari eragiten dioten esparruak soilik jasotzen dira txosten honetan; izan ere, kontratazio publikoaren gaineko eskumenak bakarrik dagozkie Kontratazio Publikoaren Aholku Batzordeari.

III.- GOGOETA JURIDIKOAK.

Lehenik eta behin, aipatu behar da dekretu-proiektu honen xede nagusia dela Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzu Publikoaren estatutu berriak ezartzea, eta, horretarako, indargabetu egiten da aurreko maiatzaren 22ko 82/2012 Dekretua, haren estatutuak arautzen zituena. Era berean, proiektu honek indargabetutako dekretuaren egiturari eusten dio neurri handi batean, eta administrazio-organismo autonomo izatetik zuzenbide pribatuko ente publiko izatera igarotzeak dakartzan berrikuntzak sartzen ditu.

Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzu Publikoaren kontratu-jarduerari dagokionez, indarrean dagoen Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 3. artikulua arabera —lege horren bidez, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/23/EB eta 2014/24/EB zuzentarauen transposizioa egiten da Espainiako ordenamendu juridikora—, ente hori bere aplikazio-eremuan sartuko da.

Era berean, Enpleguari buruzko abenduaren 21eko 15/2023 Legearen 97.3 artikulua eta dekretu-proiektuaren 30. artikulua erregulazio hori aplikatu daitekeela islatzen dute, eta Euskal Autonomia Erkidegoko legerian eta haren garapen-arauetan jasotako kontratazio-arauetara ere hedatzen dira. Horri dagokionez, 30. artikulua idatzera aldatzea gomendatzen da, eta Euskal Autonomia Erkidegoko Sektore Publikoaren Kontratazioaren araubidea ezartzen duen uztailaren 27ko 116/2016 Dekretuaren erreferentzia gehitzea, haren 2. artikulua baitio haren xedapenak Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoan integratutako entitateei aplikatuko zaizkiela.

Dekretu-proiektuak Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzu Publikoa osatzen duten organoen kontratazio-arloko eskumenak ezartzen ditu. Proiektuan jasotako xedapenak aztertzeari ekingo diogu:

Alde batetik, dekretu-proiektuaren 30. artikulua abenduaren 21eko 15/2023 Legearen 97.3 artikuluan jasotako agindua jasotzen du, hots, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legea jotzeko mandatua, bere eginkizunak betetzeko behar dituen ondasunak eta zerbitzuak kontratatzeko eta eskuratzeko araubideari dagokionez. Berrito 30.2 artikulua testua aldatzea gomendatzen dugu, eta «Euskal Autonomia Erkidegoko legerian eta hura garatzeko arauetan kontratazioari buruz jasotako arauetara ere» esaldiaren orde, Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoaren kontratazioaren araubideari buruzko uztailaren 27ko 116/2016 Dekretuaren aipamena egitea.

Bestalde, aipatutako 116/2016 Dekretuaren 6. artikulua honako hau adierazten du: *«Administrazio Orokorrean, hura osatzen duten sailen titularrak izango dira kontratazio-organismoak; eta erakunde autonomoetan eta Administrazio Orokorrean ez beste erakundeetan, berriz, ordezkari nagusia duten organismoak, salbu eta besterik xedatzen ez bada egitura organiko eta funtzionalari buruzko dekretuetan, edo erakunde horiek sortzeko edo haien funtzionamendua zehazteko arauetan».*

Ahalmen hori erabiliz, dekretu-proiektuaren eranskinean (Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzu Publikoaren estatutuen testua jasotzen da) honako xedapen hauek jasotzen dira:

- 1- 11.k) artikuluan, Administrazio Kontseiluari esleitzen zaio 2.000.000 eurotik gorako gastuak baimentzea, gastuak baimentzea dakarren kontratu edo akordio irekirik egotekotan.
- 2- 14.2 artikuluko e) letran, zuzendari nagusiari esleitzen zaio 1.000.000 euroko edo hortik gorako gastuak baimentzea, baldin eta ez badira 2.000.000 eurotik gorakoak, bai eta ordainketak agintzea ere, zuzenbide pribatuko ente publikoaren zuzendaritza exekutiboari esleitutakoak izan ezik. Era berean, f) letran, organo horri berari esleitzen zaio «Akordio irekiak, kudeaketa itunduko akordioak, eta Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzu Publikoaren berezko gaiei buruzko kontratuak sinatzea», eta administrazio publikoen kontratuei buruzko legediaren arabera kontratazio-organismoari esleituta dauden eskumen eta ahalmenak betetzea, baimendutako gastuaren zenbatekoa 1.000.000 eurokoa edo gehiagokoa denean.
- 3- 18.1.c) artikuluan, Administrazio eta Baliabide Orokorren zuzendariari esleitzen zaio 1.000.000 eurotik beherako gastuak baimentzeko eskumena; d) letran, berriz, 1.000.000 eurotik beherako sektore publikoko kontratuen gaineko eskumena esleitzen zaio.

4- 20.2 artikuluan adierazten denez, Enplegu eta Prestakuntzako zuzendariaren ahalmenak Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzu Publikoaren gobernu-organoei eta Administrazio eta Baliabide Orokorretako Zuzendaritzari kontratazio-organo gisa dagozkien funtzioei ezertan eragotzi gabe ulertuko dira.

Azaldutakoagatik, argi dago proiektuan kontratazio-arloko ahalmenak Administrazio Kontseiluari eta zuzendari nagusiari esleitzen zaizkiela. Dena den, 2.000.000 eurotik gorako kontratuen kasuan, gastua baimentzeko eskumena Administrazio Kontseiluari dagokio, eta hura sinatzeko eskumena zuzendari nagusiari.

Bestalde, Sektore Publikoko Kontratuen azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 117. artikulua, espedientea onartzeari buruzkoak, honako hau adierazten du:

«1. Kontratazio-espedientea osatu eta gero, arrazoietan oinarritutako ebazpena emango du kontratazio-organoak, espedientea onartzeko, eta adjudikazio-prozedura irekitzea xedatzeko. Ebazpen horrek gastuaren onespina ere ekarriko du, salbu eta aurrekontua aurrez ezarri ezin izan den aparteko kasuetan edo deskontzentrazio-arauek edo eskuordetze-egintzak kontrakoa ezartzen dutenean, halakoetan onespina eskatu beharko baitzaio organo eskudunari. Ebazpen hori kontratatzailearen profilean argitaratu beharko da».

lido horretan, gomendatzen da, halaber, berariaz aipatzea «espedientearen onarpena», «gastua onartzea» baitakar, zeina, idazkeraren arabera, 14.2.f) eta 18.1.d) artikuluetan ezarritakoan sartuta dagoela uler baitaiteke («administrazio publikoen kontratuei buruzko legeriak kontratazio-organoei esleitzen dizkien ahalmen eta eskumen guztiak erabiltzea»). Gastu hori onartzea zuzendari nagusiari dagokio 1.000.000 eurotik gorako kontratuei dagokienean, eta Administrazio eta Baliabide Orokorretako zuzendariari 1.000.000 eurotik beherako kontratuetan. Horren xedea da Sektore Publikoaren Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 117. artikulua ezartzen duenarekin bat etortzea.

Halaber, 1.000.000 euroko zenbatekoa duten kontratuei dagokienez, eskumena nork duen argitzea gomendatzen da, ez delako jaso proiektuaren testuan.

Bestalde, kontratazioaren arloko eskumena zehazteko adierazten diren zenbatekoek ez dute zehazten lizitazioaren oinarritzko aurrekontuari edo kontratuaren balio zenbatetsiari dagozkion, eta, ondorioz, argitu egin behar da gai hori.

Hala, Sektore Publikoko Kontratuen azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 100.1. artikulua adierazten du lizitazioaren oinarriko aurrekontua honela ulertuko dela: kontratuaren indarrez kontratazio-organoak konprometitu dezakeen gehieneko gastu-muga, horren barnean dela balio erantsiaren gaineko zerga, kontrakoa ezartzen ez bada.

Sektore Publikoko Kontratuen azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 101. artikulua xedatzen duenez, kontratuaren balio zenbatetsia da ordaindu beharreko zenbateko osoa (BEZik gabe), eta horren barruan, lan-araudiak aplikatuz eratorritako kostuez gain, honako hauetatik eratorritako kostuak hartu beharko dira kontuan kalkulua egiteko: zerbitzuen gauzatze materialetik, egitura-gastu orokorretatik eta mozkin industrialetatik eratorritakoak: (a) behin-behineko aukera eta kontratuaren balizko luzapenak; (b) lizitazileei emandako primen edo ordainketen zenbatekoa, hala ezartzen denean; eta (c) kontratu-aldaketak.

Gogoan izan behar da eskaintza ekonomiko bat aurkezteko garaian kontuan hartu behar dela lizitazioaren oinarriko aurrekontua; izan ere, kontratuaren balio zenbatetsia kontzeptu juridiko bat baino ez da. Kontzeptu juridiko horrek konfiguratzen ditu kontratuaren izaera harmonizatua, lizitazio-prozedura, publizitate-araubidea eta, are gehiago, espedientearen barruan emandako administrazio-egintzak kontratazio-arloko errekurtso bereziaren bidez errekurritu daitezkeen ala ez.

Lizitazioaren oinarriko aurrekontua eta balio zenbatetsia administrazio-klausulen agirian adierazi beharko dira. Ez bada hala, kontratazio-agirien ez-betetze gisa ulertuko da, eta, ondorioz, ezeztatu egingo da, zenbait ebazpenek adierazi duten moduan, hala nola Kontratu Errekurtsoen Administrazio Auzitegi Zentralaren 2020ko martxoaren 12ko 360/2020 Ebazpenak, 58/2020 errekurtsoan emandakoak.

Proiektuaren 14. eta 18. artikuluetan ezarritako atribuzioen zerrendari dagokionez, «akordio irekiak» eta «kudeaketa itunduko akordioak» aipatzen dira, gainerako kontratuekin batera. Haatik, aipatutako akordio irekiak eta kudeaketa itunduko akordioak ez datoz bat Sektore Publikoko Kontratuen azaroaren 8ko 9/2017 Legean ezarritako ezein kategoriarekin; hori dela eta, gomendatzen da akordio horiek oinarrian duten esparrua edo araudia aipatzea, deklaraturako ahalmenak zein eremutara mugatzen diren zehazteko.

Hala ere, akordio irekiaren edo kudeaketa itunduaren kontzeptua 2014/24/EB Zuzentarauan oinarritzen da. Bertan, onartzen da kontratu-araudi publikoa aplikatzea ez dela agintaritza eskudunek pertsonari ematen zaizkien zerbitzuak kudeatzeko duten aukera bakarra. Ildo

horretan, aipatutako zuzentarauak ezartzen duenez, gai horretan eskumena duten administrazioek «zerbitzu horiek beren kabuz emateko edo zerbitzu soziosanitarioak antolatzeke askatasuna izaten jarraitzen dute, kontratu publikoak egitea beharrezkoa izan ez dadin, hala nola zerbitzu horiek finantzatuta edo lizentziak edo baimenak emanda...».

Ondorioz, itundutako kudeaketa-akordioak kontratuzkoak ez diren antolaketa-tresnak dira; horien bidez, administrazio publikoek gizarte-zerbitzuak nola eman antola dezakete.

Era berean, proiektuak berariaz irekita uzten duenez Sektore Publikoko Kontratuen azaroaren 8ko 9/2017 Legeari lotuta ez dauden gainerako kontratuetan ahalmenak esleitzeko aukera, komeni da proiektuaren testuan jasotzea 9/2017 Legearen aplikazio-eremutik at dauden kontratuak izenpetzeko aukera.

Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzu Publikoaren ondare-, kontratazio-, dirulaguntza-, aurrekontu- eta kontrol- eta kontabilitate-araubideari dagokionez, proiektuaren 30.1 artikulua adierazten du, baliabide ekonomikoaren kasuan geratzen den antzera, 15/2023 Legearen 97. artikuluan ezarritakoa izango dela. Halaber, kontratazioaren eremuari dagokionez, 30.3 artikulua adierazten du Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzu Publikoak «*kontratazio-espedituentz izapidetuko dituela, eta bere jardueraren botere adjudikatzailerantz ezarritako araubetara egokituko duela (izan ere, botere horiek, sektore publikoko kontratazioari buruzko araudiaren ondorioetarako, administrazio publikotzat jotzen dira), bai eta Euskal Autonomia Erkidegoko legerian eta hura garatzeko araubetara buruz jasotako araubetara ere*». Apartatu horretan, Euskal Autonomia Erkidegoko Sektore Publikoaren Kontratazioaren araubideari buruzko uztailaren 27ko 116/2016 Dekretuan jasotako arauen mende egoteari buruz egindako aipamena sartzea gomendatzen da.

Azkenik, 30. artikulua 4. apartatuan ezartzen duenez, ente horrek «*bere ekonomia- eta finantza-informazioa eramango du, Kontabilitate Plan Orokorreko irizpideen arabera eginda, zuzenbide pribatuko ente publikoaren arloan dagoen araudia eta, hala badagokio, Kontrol Ekonomikoko Bulegoak ezartzen dituen irizpideak betez*».

Adierazitakoa kontuan hartuta, ALDEKO TXOSTENA ematen zaio Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren estatutuak arautzen dituen dekretu-proiektuari, betiere dekretu-proiektu horren edukia txosten honetan emandako gidalerroen eta gomendioen arabera egokitzen bada.